



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

eman la zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS
DE EXCELENCIA
INTERNACIONAL

BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA

2022ko memoria

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	4
2	ARTATUTAKO PERTSONAK	6
2.1	ZENBATEKO OSOAK	6
2.2	PERTSONEN PROFILA	6
2.2.1	SEXUA.....	6
2.2.2	ADINA	7
2.2.3	HERRITARTASUNA.....	8
2.2.4	BIZILEKUA.....	8
3	IZAPIDETUTAKO ESPEDIENTEAK	9
3.1	TIPOLOGIAREN ARABERA.....	9
3.2	SEXUAREN ARABERA.....	10
3.3	ADINAREN ARABERA	11
3.4	BIKTIMIZAZIOAK.....	12
3.5	BLZ-ra JOATEKO ARRAZOIAK	13
4	DELITUAK	15
5	ARRRETAK	17
5.1	ARRETA MOTAREN ARABERAKO BANAKAPENA.....	18
5.1.1	KOORDINAZIOA	18
5.1.2	INFORMAZIO OROKORRA	19
5.1.3	ESKU-HARTZE PSIKOLOGIKOAK.....	20
5.1.4	JARRAIPENENKO ELKARRIZKETAK	22
5.1.5	HARRERAKO ELKARRIZKETAK.....	23
5.1.6	INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA JURIDIKO ESPEZIFIKOA	24
5.1.7	DESBIDERATZEA	25
5.1.8	LAGUNTZA PSIKOSOSIALA EGINBIDE JUDIZIALETAN	26
5.1.9	DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO AHOLKULARITZA.....	28
5.1.10	LANKIDETZA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIN	29

5.1.11	DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOARI BURUZKO AHOLKULARITZA	30
5.1.12	KANPO-AHOLKULARITZA	32
5.2	ESPEDIENTE MOTAREN ARABERAKO BANAKAPENA	32
5.2.1	GENERO INDARKERIA	33
5.2.2	ASKATASUN SEXUALAREN AURKAKO DELITUAK	34
5.2.3	FAMILIA BARRUKO INDARKERIA	35
5.2.4	PERTSONEN AURKAKO DELITUAK	36
5.2.5	ONDAREAEN AURKAKO DELITUAK	37
5.2.6	TRAFIKO ISTRIPUAK	37
5.2.7	BESTE DELITU BATZUK	38
6	PREBENTZIOZKO ESPETXE-JAKINARAZPENAK	38
6.1	ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA	39
6.2	SEXUA	39
6.3	ADINA	39
6.4	HERRITARTASUNA	40
6.5	BIZILEKUA	40
6.6	JAKINARAZPEN KOPURUA	41
6.7	DELITU KOPURUA	42
7.	BILAKAERA	43

1. SARRERA

2023ko martxoaren 15ean, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak gomendioa egin zuen¹, eta, bertan, delituen biktimek justiziara iristeko oztopo guztiak identifikatzeko eta ezabatzeko eskatu zien estatu kideei.

Printzipio hau sartzen du: delituen biktimek entzunak izateko eskubidea izan behar dute, beren interesetan eragin nabarmena duen edozein erabakiri dagokionez. Erreparazio-eskubide bat ere sartzen du, errespetatzen ez diren kasuetan bere eskubideak indartzeko.

Gomendioak eskatzen du delituaren biktimei laguntzeko beren eskubideak eta zerbitzuak eskuratzen, eta eurak aitortu eta errespetuz, profesionaltasunez eta diskriminaziorik gabe tratatzeko. Gomendioak, halaber, adierazten du estatuak kontuan hartu behar dutela delituaren biktimek ere zenbait premia izan ditzaketela, eta banakako aitortpena behar dutela informazio, laguntza eta babes egokiak jasotzeko.

Estatu kideei eskatzen die biktima bihurtutako pertsonak biktimei laguntzeko zerbitzu konfidentzialak eskuratzeko aukera izan dezatela. Zerbitzuok doakoak eta euren interesaren aldekoak izan behar dira. Era berean, zerbitzu horiek eskuragarriak izan behar dute, salaketa formala aurkeztu ala ez; biktimei laguntzeko zerbitzu orokorren sistemaren barruan zentro espezializatuak sortzen edo mantentzen laguntzera animatzen dira estatuak.

¹ https://search.coe.int/cm/Pages/result_details.aspx?ObjectID=0900001680aa8263

Euskadin, BLZk² 32 urte³ daramatza lanean. Denbora horretan guztian, unitate horrek 55.000 pertsona baino gehiago artatu, babestu eta lagundu ditu bizitako biktimizazioaren ondorioz galdutako oreka berreskuratzen.

BLZ zerbitzu publikoa da, eta, beraz, herritar guztiei irekita dago –salbuespenik gabe–, kudeaketa tekniko, kualifikatu, espezializatu eta diziplinarrekoarekin. Ikuspegi holistikoa du babesa ematen zaien pertsonen bizitako eta sentitutako egoerei heltzean; biktimizazioak, judizializatuak edo ez, ebaluazio eta diagnostiko indibidualizatuak, esku-hartze estrategietan testuinguru pertsonalak, baliabide komunitarioekin harremanetan jartzea eta, jakina, pertsonaren protagonismoa barne hartzen dituztenak.

2022an, iazko memoriarekin konparazio labur bat eginez, BLZk 2.683 pertsonari eman die estaldura, eta 2021ean, berriz, 2.829 pertsonari. Espedienteen kopuruak ere behera egin du: 2.734 espediente 2022an, eta 3.487 espediente 2021ean. Eta datu horiekin batera, arretak ere behera egin du: 8.887 arreta eskaini dira, 2021eko 10.100en aldean. Nabarmenezkoa da, artatutako pertsona gehienak emakumeak izan arren, apur bat igo dela zerbitzura laguntza eske joan diren gizonen kopurua (%15 2021ean eta %17 2022an).

Dokumentu honetan aurkeztutako kuantifikazioa zerbitzuaren 2022ko jardueraren zenbakizko isla da; zenbaki horien atzean pertsonak daude, bizitzak, lanak eta era guztietako egunerokotasunak dituztenak, eta, nahi gabe, biktimizazioaren esperientzia txertatzeko modua bilatu behar izan dute.

² [Biktima Laguntzeko Zerbitzua](#)

³ [Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak hiru hamarkada egin ditu lanean, eta iaz 2.829 pertsona artatu zituen \(eitb.eus\)](#)

2 ARTATUTAKO PERTSONAK

2.1 ZENBATEKO OSOAK

2022an 1.428 pertsona artatu dira, aurreko urteetako 1.255 pertsoneri gehituta, guztira 2.683 pertsona. Ehunekorik handiena duen lurralde historikoa (%63) Bizkaia da, ondoren Gipuzkoa (%21) eta azkenik Araba (%16). %53 BLZra lehen aldiz iristen diren pertsonak dira, eta %47 esku-hartze bat hasita zuten pertsonak.

	BIZKAIA	GIPUZKOA	ARABA	GUZTIRA
2022. URTEA	812	381	235	1.428 (%53)
2022.a BAINO LEHENAGOKOAK	889	186	180	1.255 (%47)
GUZTIRA	1.701 (%63)	567 (%21)	415 (%16)	2.683

1. taula: BLZn artatutako pertsonak, guztira, 2022an, lurralde historikoaren arabera. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).


2.2 PERTSONEN PROFILA

Jarraian, zenbait aldagai deskribatuko ditugu artatutako biztanleriari buruz: sexua, adina, nazionalitatea eta bizilekua. Lehenengo bi aldagaiak lurralde historikoen arabera aurkezten dira, eta azken biak EAEko guztizko datuekin, zaila baita lurraldeka irakurtzea. Nolanahi ere, datuak barne-mailan daude eskuragarri.

2.2.1 SEXUA

Grafikoan ikus daitekeenez, sexu nagusia femeninoa da hiru lurraldeetan. Guztira, emakumeak %83 dira (2.230 pertsona) eta gizonak %17 (453 pertsona). Emakume-kopuru handiena Arabakoa da (363, 415 pertsonatik), gero Bizkaikoa (1.416,

1.701 pertsonatik) eta, azkenik, Gipuzkoakoa (451, 567 pertsonatik). Grafikoan lurralde historiko bakoitzeko ehunekoak agertzen dira.



1. grafikoa: BLZn artatutako pertsonen sexua 2022an, lurralde historikoaren arabera. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

2.2.2 ADINA

Ehuneko nagusia 31 eta 50 urte bitartekoa da, bai guztizko datuetan, bai hiru lurraldeetako bakoitzean. Era berean, ehuneko txiki bat (%4) 18 urtetik beherakoak dira, eta beste bat (%5) ez dago zehaztuta memoria hau egiteko unean.


	BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA		GUZTIRA	
< 18	81	(%5)	21	(%4)	8	(%2)	110	(%4)
18-30	376	(%22)	108	(%19)	86	(%21)	570	(%21)
31-50	731	(%43)	253	(%45)	224	(54%)	1.208	(%45)
51-70	359	(%21)	146	(%26)	82	(%20)	587	(%22)
> 71	60	(%4)	18	(%3)	13	(%3)	91	(%3)
ZEHAZTU GABE	94	(%5)	21	(%3)	2	---	117	(%5)
GUZTIRA	1.701 (%63)		567 (%21)		415 (%16)		2.683	

2. taula: BLZn artatutako pertsonen adina 2022an, lurralde historikoaren arabera. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

2.2.3 HERRITARTASUNA

Gogoratzen badugu, 2022an artatutako pertsonen kopurua 2.683 zen. Nazionalitateari dagokionez, ehuneko handiena Europar Batasuneko zen (%78, 2.082 pertsona), eta horietatik %76 Espainiakoa (55 pertsona bakarrik, %2, beste estatu batzuetakoak).

Europar Batasuneko estatuetatik kanpoko pertsonak %22 dira (601 pertsona).



2. grafikoa: BLZn artatutako pertsonen nazionalitatea 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

2.2.4 BIZILEKUA

Azkenik, bizilekuari dagokionez, artatutako pertsona gehienak Bizkaian bizi dira (%53), ondoren Gipuzkoan (%25), Araban (%17) eta beste leku batzuetan (%5). Azken datu horri dagokionez, esan behar dugu artatutako pertsonen bizilekuek, kasu batzuetan, ez dutela zertan bat etorri arreta jasotzen duten lurraldeekin, haiek erabakitzen baitute zein zerbitzutara jo. Horregatik, "beste bat" atala Euskadin bizi ez diren pertsonentzat da.

BIZKAIA	1.427 (%53)
GIPUZKOA	675 (%25)
ARABA	466 (%17)
BESTE BAT	115 (%5)
GUZTIRA	2.683

3. taula: BLZn artatutako pertsonen bizilekua 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

3 IZAPIDETUTAKO ESPEDIENTEAK

Atal honetan, beharrezkotzat jotzen da argitzea guztizko kopurua aurreko ataletan agertzen dena baino zertxobait handiagoa dela, kasu honetan espediente irekiak dituzten pertsona guztiak sartzen baitira. Gertatzen dena da, egoera jakin batzuetan, 51 pertsonak, zehazki, espediente ireki bat baino gehiago dutela, eta hortik dator ikusitako aldea.


Espedienteak tipologiaren arabera aztertuko ditugu (BLZren lanaren adierazgarri diren biktimizazio-kausak biltzen dituzten kategorietan sailkatzen dira), espedienteetan parte hartzen duten pertsonen sexuaren eta adinaren arabera, biktimizazio motaren arabera eta, azkenik, BLZn artatutako pertsonen igorpen-iturriaren arabera. Aurreko atalean gertatu den bezala, delituen tipologia eta igorpen-iturria ere lurralde historikoen arabera adierazten dira.

3.1 TIPOLOGIAREN ARABERA

Izapidetutako 2.734 espedienteei dagokienez, gehienak (%53, 1.439) genero-indarkeriako delituak dira, ondoren familia barruko indarkeria (%14, 386) eta pertsonen aurkako delituak (%14, 384). Sexu-askatasunaren aurkako delituak %13 dira (347). Ondarearen aurkako delituak %4 dira (102) eta bestelako delituak %2 (71). Trafiko-

istripuengatik ireki direnak ez dira grafikoan sartu, 5 bakarrik izan baitira (2 Bizkaian eta 3 Gipuzkoan).

Lurraldeen araberako datuei dagokienez, Bizkaia eta Gipuzkoa bat datoz datu guztien ehunekoan ordenarekin. Arabaren kasuan ere genero-indarkeria da delitu nagusia, baina, bigarren lekuan, sexu-askatasunaren aurkako delituak daude, gainerako lurraldeen ordenarekin jarraituz.



3. grafikoa: 2022an BLZn izapidetutako espedienteen delituen tipologia. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

3.2 SEXUAREN ARABERA

Sexuaren aldagaiari dagokionez, izapidetutako espedienteetan ikus daiteke gehienak emakumeak direla (2.280 pertsona, %83) eta 454 gizonak (%17).

Emakumeen eta gizonen arteko alderik nabarmenenak genero-indarkeriako eta sexu-askatasunaren aurkako delituetan daude. Gainerako delituetan aldeak ez dira hain handiak, baina emakumeek gizonek baino ehuneko handiagoak dituzte beti.

	EMAKUMEA	GIZONAK	GUZTIRA
GENERO-INDARKERIA	1.410 (%98)	29 (%2)	1.439 (%53)
FAMILIA BARRUKO INDARKERIA	243 (%63)	143 (%37)	386 (%14)
PERTSONEN AURKAKO DELITUAK	209 (%54)	175 (%46)	384 (%14)
ASKATASUN SEXUALAREN AURKAKO DELITUAK	310 (%89)	37 (%11)	347 (%13)
ONDAREAREN AURKAKO DELITUAK	59 (%58)	43 (%42)	102 (%4)
TRAFIKO ISTRIPUAK	3 (%60)	2 (%40)	5 (%0)
DELITU OROKORRAK	46 (%65)	25 (%35)	71 (%3)
GUZTIRA	2.280 (%83)	454 (%17)	2.734

4. taula: BLZn izapidetutako espedienteetan sartutako pertsonen sexua 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

3.3 ADINAREN ARABERA

Adinari dagokionez, tarte handiena 31-50 urtekoa da (1.236 pertsona espediente irekiekin, guztizkoaren %45). Ehunekorik txikiak 18 urtetik beherakoei dagozkie (%4), eta 71 urtetik gorakoei (%3).

	< 18	18-30	31-50	51-70	>71	ZEHAZTU GABE	GUZTIRA
GENERO- INDARKERIA	22	284	848	230	14	41	1.439
FAMILIA BARRUKO INDARKERIA	38	65	90	135	49	9	386
PERTSONEN AURKAKO DELITUAK	9	60	152	118	15	30	384
ASKATASUN SEXUALAREN AURKAKO DELITUAK	42	145	92	47	0	21	347
ONDAREAREN AURKAKO DELITUAK	0	17	28	42	6	9	102
TRAFIKO ISTRIPUAK	0	0	1	3	1	0	5
DELITU OROKORRAK	1	10	25	26	2	7	71
GUZTIRA	112 (%4)	581 (%21)	1.236 (%45)	601 (%22)	87 (%3)	117 (%4)	2.734

5. taula: BLZn izapidetutako espedienteetan sartutako pertsonen adina 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

3.4 BIKTIMIZAZIOAK

Biktimizazioari dagokionez, ikus daiteke nola sailkatzen den zuzenean edo zeharka (zeharkako biktimak dira zerbitzura jotzen dutenak informazioa edo laguntza eskatuz, baina ez zuzeneko biktimak). Ikusten dugu zuzeneko biktimizazioa %94koa dela, eta zeharkakoa, berriz, %6koa. Trafiko-istripuak kontuan hartzen ez baditugu,

kopurua oso txikia delako, zeharkako biktimizazioaren ehuneko nagusiak pertsonen aurkako eta sexu-askatasunaren aurkako delituak dira (% 13 eta % 12, hurrenez hurren).

	ZUZENA	ZEHARKAKOA	GUZTIRA
GENERO-INDARKERIA	1.389 (%97)	50 (%3)	1.439
FAMILIA BARRUKO INDARKERIA	375 (%97)	11 (%3)	386
PERTSONEN AURKAKO DELITUAK	336 (%87)	48 (%13)	384
ASKATASUN SEXUALAREN AURKAKO DELITUAK	304 (%88)	43 (%12)	347
ONDAREAREN AURKAKO DELITUAK	98 (%96)	4 (%4)	102
TRAFIKO ISTRIPUAK	4 (%80)	1 (%20)	5
DELITU OROKORRAK	64 (%90)	7 (%10)	71
GUZTIRA	2.570 (%94)	160 (%6)	2.734

6. taula: Arreta jaso duten pertsonen biktimizazio zuzena/zeharkakoa, 2022an BLZn izapidetutako espedienteetan sartuta. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

3.5 BLZ-ra JOATEKO ARRAZOIAK

Igorpen-iturriak dira biktima BLZra iristeko erabiltzen diren erakunde, zerbitzu, kanal eta abarrak. Horrela, taula honetan aurkezten diren 16 iturrietatik, pertsona gehienak beren ekimenez joaten dira (%30), beste %21 epaitegitik joaten dira, eta azkenik, %18 espetxetik ateratzeagatik, hiru iturri horiek guztien %70 batuta. Azken iturri hori biktimagilearen neurriak aldatu edo espetxetik atera direla jakinarazten

zaienean BLZra jotzen duten biktimei dagokie. Gainerako bidalketa-iturrien ehunekoak gutxienekoak dira (%6 edo gutxiago).

	BIZKAIA	GIPUZKOA	ARABA	GUZTIRA	
BERE EKIMENEZ	662	64	81	807	(%30)
EPAITEGIAK	312	202	71	585	(%21)
ESPETXETIK ATERATZEA	459	9	17	485	(%18)
ERTZAINZAK	54	57	66	177	(%6)
GIZARTE-ZERBITZUAK	69	56	49	174	(%6)
ADMINISTRAZIOAK	79	27	30	136	(%5)
BLZko ERABILTZAILA IZAN DA	19	31	21	71	(%3)
ABOKATUAK	22	20	41	83	(%3)
ELKARTEAK	19	73	3	95	(%3)
EUSKADIKO EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ARLOKO KOORDINAZIO ZENTRUA	25	2	15	42	(%2)
OSASUN-ZERBITZUAK	4	13	9	26	(%1)
BESTE ERABILTZAILA BATEK GOMENDATUTA	2	14	11	27	(%1)
FISKALTZAK	9	5	1	15	(%1)
MEDIKU FORENTSEAK	2	2	2	6	---
ORIENTAZIO JURIDIKOKO ZERBITZUA	0	1	2	3	---
JUSTIZIA ERRESTAURATIBOAREN ZERBITZUA	0	0	2	2	---
GUZTIRA	1.737 (%64)	576 (%21)	421 (%15)	2.734	

7. taula: BLZn izapidetutako espedienteetan jasotako pertsonen bidalketa-iturria, 2022an, lurralde historikoaren arabera. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

4 DELITUAK

Espedienteetan agertzen diren delituen tipologiari dagokionez, hamabost kategoria nagusi daude, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala. Tratu txarrei buruzkoa da nagusi (guztizkoaren %64), eta ohiko genero-indarkeria da ohikoena tratu txarren artean (%75).

Bigarrenik, Sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako 374 delitu daude, tratu txarren ehuneko baina askoz txikiagoa, delitu guztien %13 baitira. Horietatik ia guztiak sexu-eraso eta sexu-gehiegikeri delituak dira.

Hirugarrenik, Askatasunaren aurkako delituak (207) daude, eta mehatxuak eta hertsapenak dira ia delituen kategoria hori azaltzen dutenak.

Laugarren lekuan Lesioak daude, 187 deliturekin (%7); bosgarrenean Ondarearen aurkako delituak daude, 134 deliturekin (guztizkoaren %5); gehienak iruzurrak eta lapurreta dira, eta seigarrenean Hilketak (%2 bakarrik).

Azkenik, taulan adierazten diren beste delitu-tipologia batzuekin egiten dugu topo, baina ez dira ehuneko esanguratsura iristen (kondena-urratzeak, ohorearen aurkako delituak, eta abar).

		BIZKAIA	GIPUZKOA	ARABA	GUZTIRA	
Tratu txarrak	Ohiko genero-indarkerian	883	278	228	1.389	1.844 (%64)
	Familia barruko indarkerian	218	110	43	371	
	Genero-indarkerian	34	7	27	68	
	Familia barruko indarkerian	3	2	11	16	
Sexu-askatasun eta ukigabetasunaren aurkakoak	Sexu-gehiegikeria	116	38	43	197	374 (%13)
	Sexu-erasoa	107	31	19	157	
	Sexu-jazarpena	7	4	5	16	
	Prostituzioari eta adingabeak galbidean jartzeari dagozkienak	3	0	0	3	
	Exhibizionismoa eta sexu-probokazioa	0	0	1	1	
Askatasunaren aurkakoak	Mehatxuak	58	29	24	111	207 (%7)
	Hertsapenak	34	27	23	84	
	Legez kontrako atxiloketa eta bahiketa	5	0	0	5	
	Bullyinga	1	1	2	4	
	Mobbinga	2	0	1	3	




Lesioak		127	38	22	187 (%7)	
Ondarearen aurka	Iruzurra	26	4	8	38	134 (%5)
	Lapurreta	25	2	5	32	
	Kalteak	17	1	1	19	
	Ebasketa	11	2	4	17	
	Bidegabeko jabetzea	14	0	0	14	
	Usurpazioa	7	0	0	7	
	Estortsioa	2	1	1	4	
	Ibilgailua erabiltzeko lapurtzea eta ebastea	3	0	0	3	
Gizahilketa	Gizahilketa	29	2	3	34	60 (%2)
	Gizahilketa saiakera	23	3	0	26	
Justizia Administrazioaren aurka (Kondena urratzea)		3	1	10	14 (%---)	
Ohorearen aurkako eraso	Kalumniak	6	0	1	7	12 (%---)
	Irainak	5	0	0	5	
Famili-harremanen aurka	Familia, adingabeak edo babes berezia behar duten desgaituak bertan behera uztea	0	0	5	5	10 (%---)
	Familiako eskubideen eta betebeharren kontra	2	0	1	3	
	Adingabeak ostean	1	0	0	1	
	Zaintza-eginbeharra ez betetzea eta adingabeek egoitza utz dezaten induzitzea	1	0	0	1	
Intimitatearen kontra, norberaren irudia edukitzeko eskubidearen kontra eta egoitzaren bortxaezintasunaren kontra	Bizilekua bortxatzea	2	1	4	7	8 (%---)
	Sekretuak erakustea eta ezagutaraztea	1	0	0	1	
Torturak eta osotasun moralaren aurkako beste delituak		1	3	2	6 (%---)	
Segurtasun kolektiboaren aurka		1	3	0	4 (%---)	
Langileen eskubideen aurka		2	0	0	2 (%---)	
Ordena publikoaren aurkakoa (Agintaritzaren aurkako atentatua)		1	0	0	1 (%---)	
Faltsukeriak (Agiriak-faltsutzeak)		0	0	1	1 (%---)	
GUZTIRA		1.781 (%62)	588 (%21)	495 (%17)	2.864	

8. taula: BLZn artatutako pertsonen espedienteetako delituen tipologia 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

5 ARRRETAK

2022an, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuko hiru zerbitzuek 8.887 arreta eman dituzte guztira. Gehienak Bizkaian egiten dira (5.840, %66), eta oso urrun daude Gipuzkoa (1.732, %20) eta Araba (1.315, %14). Arreta-tipologia askotarikoa da, jarraian ikusiko dugun bezala.



4. grafikoa: BLZn 2022an egindako arreta-motak. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

5.1 ARRETA MOTAREN ARABERAKO BANAKAPENA


5.1.1 KOORDINAZIOA

Biktimaren esku-hartzea hainbat erakunde publiko eta pribaturekin koordinatzea. Mota horretako 2.686 jarduera egin dira 2022an, eta gehienak Justizia Administrazioarekin (%39), Estatuko Administrazioarekin (%26) eta Administrazio Autonomikoarekin (%18) koordinatu dira. Gehienak Bizkaian egiten dira (%86).

		BIZKAIA	GIPUZKOA	ARABA	GUZTIRA
KOORDINAZIOA	Justizia-administrazioarekin	919	57	68	1.044 (%39)
	Estatuko administrazioarekin	670	11	7	688 (%26)
	Administrazio autonomikoarekin	427	19	25	471 (%18)
	Toki administrazioarekin	70	54	36	160 (%6)
	AJZrekin / autonomía erkidegoarekin	63	7	5	75 (%3)
	Foru-administrazioarekin	23	4	21	48 (%2)
	Laguntza-elkarte pribatuekin	15	3	6	24 (%1)
	Osakidetzarekin	4	7	3	14 (%1)
	Lanbiderekin	0	1	0	1 (%0)
	Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuarekin	0	1	0	1 (%0)
	Beste batzuekin	130	22	8	160 (%6)
GUZTIRA		2.321 (%86)	186 (%7)	179 (%7)	2.686

9. taula: Koordinazioen guztizkoa, BLZren lurralde historikoaren arabera, 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

Koordinatu beharreko espediente-motei dagokienez, espediente gehienak genero-indarkeriari buruzkoak dira (%58), eta, ondoren, askoz ere ehuneko txikiagoarekin datoz sexu-askatasunaren aurkako delituak (%16) eta familia barruko indarkeria (%12).⁴



5. grafikoa: 2022an BLZn koordinazioa eman zaien espediente izapidetuen tipologia. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

5.1.2 INFORMAZIO OROKORRA

Biktimak planteatutako hainbat gairi buruzko informazio orokorra ematea: eskubideak, salaketak jartzea, doako laguntza juridikoa, laguntzak, auzi judizialak, esku-hartzeak, etab. Jarduketa horiek ez dute eskatzen biktimaren baldintzen azterketa sakonik. Guztira, 2.555 arreta eman dira, eta gehienak telefono bidezkoak izan dira (%88). Bizkaian egiten dira jarduera horien %70.


		BIZKAIA	GIPUZKOA	ARABA	GUZTIRA
INFORMAZIO OROKORRA	Telefono bidezkoa	1.631	503	107	2.241 (%88)
	Idatzizkoa	120	71	7	198 (%8)
	Aurrez aurrekoa	46	33	37	116 (%5)

⁴ Koordinazio 1 egin da trafiko-istripuetan. Grafikoa ez da agertzen, gutxieneko ehuneko bat adierazten ez duelako.

GUZTIRA	1.797 (%70)	607 (%24)	151 (%6)	2.555
---------	------------------------------	----------------------------	---------------------------	--------------

10. taula: Arreta guztiak, BLZren lurralde historikoaren arabera, 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

Informazio orokorreko espediente-motei dagokienez, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, gehienak genero-indarkeriari buruzkoak dira (%51), eta ondoren datoz pertsonen aurkako delituak (%16), sexu-askatasunaren aurkako delituak eta familia barruko indarkeria (%12, hurrenez hurren). Gainerako delituen ehunekoak %5etik beherakoak dira.⁵



6. grafikoa: 2022an BLZn informazio orokorra eskaini zaien izapidetutako espedienteen tipologia. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

5.1.3 ESKU-HARTZE PSIKOLOGIKOAK

Delitua bizitzearen ondorioz galdutako edo ahitutako trebetasunak eta tresnak berreskuratzeko esku-hartze psikologikoa. Hainbat esku-hartze mota sartzen dira, hala nola lehen balorazioak, krisietan esku-hartzea, elkarrizketa terapeutikoak eta


⁵ Trafiko-istripuei buruzko informazio orokorreko 6 jarduketa egin dira. Grafikoan ez dira agertzen, gutxiengo ehuneko bat adierazten ez dutelako.

tratamenduaren jarraipenak. Guztira 1.070 esku-hartze psikologiko egin dira 2022an, eta oso antzeko ehunekoak aurkeztu dira lurraldeen artean.

	GIPIZKOA	BIZKAIA	ARABA	GUZTIRA
ESKU-HARTZE PSIKOLOGIKOAK	381 (%36)	374 (%35)	315 (%29)	1.070

11. taula: Esku-hartze psikologikoen guztizkoa, BLZren lurralde historikoaren arabera, 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

Esku-hartze psikologikoen xede diren espediente motei dagokienez, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, ehunekoak zertxobait banatuagoak daude. Hala, genero-indarkeriaren eta familia barruko indarkeriaren espedienteak %32 eta % 31 dira, hurrenez hurren, eta, ondoren, sexu-askatasunaren aurkako delituak (%22) eta pertsonen aurkako delituak (%13).⁶



7. grafikoa: 2022an BLZn esku-hartze psikologikoak eskaini zaizkien espediente izapidetuen tipologia. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

⁶ 4 esku-hartze psikologiko egin dira ondarearen aurkako delituetan, eta beste 3 zirkulazio-istripuetan. Grafikoan ez dira agertzen, gutxieneko ehuneko bat adierazten ez dutelako.


5.1.4 JARRAIPENEO ELKARRIZKETAK

Jarduketa horrek harrera-elkarrizketan hasitako lanarekin jarraitzen du, eta aukera ematen du biktimaren problematikan sakontzeko, haren beharrak zehazteko, haren egoera baloratzeko eta, hala badagokio, esku-hartzea zuzentzeko eta/edo aldatzeko. 742 jarraipen-elkarrizketa egin dira 2022an, eta Bizkaian egin dira elkarrizketa horien %69.

	BIZKAIA	ARABA	GIPUZKOA	GUZTIRA
JARRAIPENEO ELKARRIZKETAK	513 (%69)	129 (%17)	100 (%14)	742

12. taula: Jarraipen-elkarrizketak, guztira, BLZren lurralde historikoaren arabera, 2022an.
Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

Jarraipen-elkarrizketen espediente-motei dagokienez, berriz ere espediente gehienak genero-indarkeriari buruzkoak dira (%53), eta, atzetik, askoz ere ehuneko txikiagoa dute sexu-askatasunaren aurkako delituek (%15), ondarearen aurkako delituek (%12) eta pertsonen aurkako delituek (%11).



8. grafikoa: 2022an BLZn jarraipen-elkarrizketak eskaini zaizkien espediente izapidetuen tipologia. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).


5.1.5 HARRERAKO ELKARRIZKETAK

Biktimarekin lehen harremana izatea, konfiantza-giroa sortzeko eta beharrezko informazioa biltzeko. Helburua da diagnostikoa egitea eta pertsonak garatu beharreko ibilbidea antolatzea, errehabilitatzeko eta berreskuratzeko. 2022an, 708 harrera-elkarrizketa egin dira, eta Bizkaiko BLZk egin ditu elkarrizketa horien %50.

	BIZKAIA	ARABA	GIPUZKOA	GUZTIRA
HARRERAKO ELKARRIZKETAK	355 (%50)	202 (%29)	151 (%21)	708

13. taula: Harrerako elkarrizketak, BLZren lurralde historikoaren arabera, guztira, 2022an.
Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

Harrera-elkarrizketen espediente-motei dagokienez, aurreko kasuan bezala, espediente gehienak genero-indarkeriari buruzkoak dira (%59), eta, ondoren, askoz ere ehuneko txikiagoarekin datoz sexu-askatasunaren aurkako delituak (%14), pertsonen aurkako delituak (%12) eta familia barruko indarkeria (%10).⁷



⁷ Trafiko-istripuei buruzko 2 harrera-elkarrizketa egin dira. Grafikoan ez dira agertzen, gutxieneko ehuneko bat adierazten ez dutelako.

9. grafikoa: 2022an BLZn harrera-elkarrizketak eskaini zaizkien espediente izapidetuen tipologia. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).


5.1.6 INFORMAZIO ETA AHOALKULARITZA JURIDIKO ESPEZIFIKOA

Biktima edozein gai juridikori buruz orientatzea, eta, batez ere, prozesu judizialari eta salaketa jartzeari buruz dituen zalantzak argitzea. 462 izan dira horrelako jarduerak, eta antzeko ehunekoak izan dira hiru zerbitzuen artean.

	BIZKAIA	GIPUZKOA	ARABA	GUZTIRA
INFORMAZIO ETA AHOALKULARITZA JURIDIKO ESPEZIFIKOA	167 (%36)	163 (%35)	132 (%29)	462

14. taula: Informazio eta aholkularitza juridiko espezifikoen guztizkoa, BLZren lurralde historikoaren arabera, 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

Berriazko informazioen eta aholkularitza juridikoaren xede diren espediente-motei dagokienez, berriz ere ikusten dugu espediente gehienak genero-indarkeriari buruzkoak direla (%53), eta, ondoren, askoz ere ehuneko txikiagoa dutela sexu-askatasunaren aurkako delituei (%15), ondarearen aurkako delituei (%12) eta pertsonen aurkako delituei (%11) buruzko espedienteek.



10. grafikoa: 2022an BLZn espezializatutako informazioa eta aholkularitza juridikoa eskaini zaizkien espediente izapidetuen tipologia. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).


5.1.7 DESBIDERATZEA

Biktima erakunde publiko eta pribatuetara bidaltzeko egindako kudeaketak, tratamendu bio-psiko-sozialarekin jarraitu ahal izateko. 281 jarduketetatik, gehienak Foru Administrazioa (%29) eta Toki Administrazioa (%27) egindako bideratzeei dagozkie. Jarduera horien %45 Bizkaian egiten dira.

		BIZKAIA	GIPUZKOA	ARABA	GUZTIRA
DESBIDERATZEA	Foru-administrazioa	37	0	45	82 (%29)
	Toki administrazioa	22	39	15	76 (%27)
	Lanbidera	15	1	6	22 (%8)
	Autonomi-erkidegora	3	17	0	20 (%7)
	Justizia-administrazioa	11	4	1	16 (%6)
	Osakidetzara	9	6	0	15 (%5)
	Laguntza-elkarte pribatura	0	7	0	7 (%2)
	AJZera / Beste autonomia-erkidego batera	2	0	0	2 (%1)
	Beste batzuetara	27	11	3	41 (%15)
	GUZTIRA	126 (%45)	85 (%30)	70 (%25)	281

15. taula: Deribazioak, guztira, BLZren lurralde historikoaren arabera, 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

Koordinatu beharreko espediente-motei dagokienez, argi eta garbi, espediente gehienak genero-indarkeriari buruzkoak dira (%75), eta, ondoren, sexu-askatasunaren aurkako delituei buruzko espedienteen ehunekoa askoz txikiagoa da (%14).



11. grafikoa: 2022an BLZn deribazioa eman zaien izapidetutako espedienteen tipologia. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).


5.1.8 LAGUNTZA PSIKOSOZIALA EGINBIDE JUDIZIALETAN

Biktimari laguntza eskaintzea instantzia judizialekiko harremanetan. Prozedura judizialak sortzen duen eragin emozionala arindu nahi da. Pertsonaren beharren arabera, jarduketak prozesuan parte hartu aurrekoak izan daitezke, prestaketa-jarduketak (epaitegietara laguntzea, antzeko epaiketetara, etab.) edo biktimaren beraren prozesuko eginbide judizialekiko eta epaiketara laguntzea baino ez. Ohikoenak epaiketetara (%25) eta beste zerbitzu judizial batzuetara (%20) laguntzea dira. Arabak hartzen ditu jarduketa horien erdiak (%50).

		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
LAGUNTZA PSIKOSOZIALA EGINBIDE JUDIZIALETAN	Epaiketan	17	12	11	40 (%25)
	Beste zerbitzu judicial batzuetan	10	15	8	33 (%20)
	Agerraldian	15	8	2	25 (%16)
	Deklarazioan	12	6	3	21 (%13)
	Dekanotzan	14	2	1	17 (%11)
	Epaiketa prestatzen	12	1	1	14 (%9)
	AJZn	1	7	3	11 (%7)
GUZTIRA		81 (%50)	51 (%32)	29 (%18)	161

16. taula: Eginbide judizialerako laguntza psikosozialen guztizkoa, BLZren lurralde historikoaren arabera, 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

Eginbide judizialerako laguntza psikosoziala emateko espediente-motei dagokienez, espediente gehienak genero-indarkeriari buruzkoak dira berriz ere (%42), eta atzetik datoz askoz ere ehuneko txikiagoa sexu-askatasunaren aurkako delituei (%27) eta pertsonen aurkako delituei (%20) buruzko espedienteak



12. grafikoa: BLZn 2022an eginbide judizialerako laguntza psikosoziala eman zaien espediente izapidetuen tipologia. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).


5.1.9 DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO AHOHKULARITZA

Biktimari informazioa eta aholkuak ematea araututako laguntzen eskaerari buruz; abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan, genero-indarkeriaren aurka oso-oso babesa emateko neurriei buruzkoan; eta abenduaren 11ko 35/1995 Legean, indarkeriazko delituen eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntza eta arreta emateari buruzkoan. 2022an 87 aholkularitza egin dira laguntza ekonomikoei buruz, eta horietatik gehienak (%95) genero-indarkeriari buruzkoak dira. Bizkaian %51 eta Gipuzkoan %44, horien %95.

		BIZKAIA	ARABA	GIPUZKOA	GUZTIRA
DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO AHOHKULARITZA	Genero- indarkeriarengandik	40	38	5	83 (%95)
	Indarkeriazko delituengandik	4	0	0	4 (%5)
GUZTIRA		44 (%51)	38 (%44)	5 (%5)	87

17. taula: Laguntza ekonomikoei buruzko aholkularitzak guztira, BLZren lurralde historikoaren arabera, 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

Aurreko taulan aurkezten den informazioaren ondorioz, Laguntza Ekonomikoei buruzko Aholkularitzaren xede diren espediente motak, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, gehienak genero-indarkeriari buruzkoak dira (%90).



13. grafikoa: 2022an BLZn laguntza ekonomikoei buruzko aholkularitza eskaini zaien espediente izapidetuen tipologia⁸. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

5.1.10 LANKIDETZA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIN


BLZk epaitegiekin egiten dituen lankidetzajarduerak, epaitegiek eurek eskatuta edo beren ekimenez: babes-neurriei buruzko txostenak eta idazkiak, peritu eta lekuko-jarduerak, defendatzaile judizialarekin lankidetzan aritzea eta abar. Egindako 67 jarduketetatik, gehienak babes-neurriei buruzko idazkiak dira (%66), eta Bizkaian egiten dira (%76).

		BIZKAIA	ARABA	GIPUZKOA	GUZTIRA
LANKIDETZA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIN	Babes-neurrien idatziak	35	7	2	44 (%66)
	Txostenak prestatzea	14	7	0	21 (%31)
	Peritu-jarduera	2	0	0	2 (%3)
GUZTIRA		51 (%76)	14 (%21)	2 (%3)	67

18. taula: Justizia Administrazioarekiko Lankidetzak guztira, BLZren lurralde historikoaren arabera, 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

⁸ 4 esku-hartze psikologiko egin dira ondarearen aurkako delituetan, eta beste 3 zirkulazio-istripuetan. Grafikoan ez dira agertzen, gutxieneko ehuneko bat adierazten ez dutelako

Justizia Administrazioarekin lankidetzan aritu beharreko espediente-motei dagokienez, espediente gehienak genero-indarkeriari eta sexu-askatasunaren aurkako delituei buruzkoak dira (%33, hurrenez hurren), eta, ondoren, pertsonen aurkako delituei buruzko espedienteak (%21).



14. grafikoa: 2022an BLZn Justizia Administrazioarekin lankidetzan aritzeko aukera eman zaien espediente izapidetuen tipologia. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).


5.1.11 DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOARI BURUZKO AHOLKULARITZA

Doako laguntza juridikoaren eskaerari buruzko informazioa eta aholkularitza ematea biktimari. Eskatzailearen baldintza partikularrak eta dokumentuak aztertu behar dira, eta, egoki iritziz gero, biktimaren baldintzak kontuan hartuta, jarduketa Orientazio Juridikoko Zerbitzura (OJZ) eta beste egoitza batzuetara joaten laguntzea izango da. Era horretako 51 aholkularitza egin dira 2022an, gehienak Bizkaian (%80).

	BIZKAIA	GIPUZKOA	ARABA	GUZTIRA
DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOARI BURUZKO AHOLKULARITZA	41 (%80)	6 (%12)	4 (%8)	51

19. taula: Doako laguntza juridikoari buruzko aholkularitzak, guztira, BLZren lurralde historikoaren arabera, 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

Doako laguntza juridikoari buruzko aholkularitza jaso duten espediente-motei dagokienez, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, espediente gehienak genero-indarkeriari buruzkoak dira (%45), eta, ondoren, pertsonen aurkako delituak (%25), sexu-askatasunaren aurkako delituak (%16) eta ondarearen aurkako delituak (%12) daude.



15. grafikoa: 2022an BLZn doako laguntza juridikoa eskaini zaien izapidetutako espedienteen tipologia⁹. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

⁹ 4 esku-hartze psikologiko egin dira ondarearen aurkako delituetan, eta beste 3 zirkulazio-istripuetan. Grafikoan ez dira agertzen, gutxieneko ehuneko bat adierazten ez dutelako.


5.1.12 KANPO-AHOLKULARITZA

BLZri hainbat kontsulta planteatzen dizkioten profesionalei informazioa eta aholkularitza ematea. 17 aholkularitza eman dira Gipuzkoan.

	GIPIZKOA	BIZKAIA	ARABA	GUZTIRA
KANPO-AHOLKULARITZA	17 (%100)	---	---	17

20. taula: BLZren kanpo-aholkularitzak guztira, lurralde historikoaren arabera, 2022an.
Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

Kanpo-aholkularitzaren xede diren espediente-motei dagokienez, espediente gehienak genero-indarkeriari buruzkoak dira (%71) eta sexu-askatasunaren aurkako delituak gainerako %29.



16. grafikoa: 2022an BLZn kanpo-aholkularitza eman zaien izapidetutako espedienteen tipologia. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

5.2 ESPEDIENTE MOTAREN ARABERAKO BANAKAPENA

Biktimari Laguntzeko Zerbitzuek eskaintzen dituzten laguntza motei buruzko informazioa aurkezteko beste modu bat biktimizazio-kausa desberdinak kontuan hartzea da. Jarraian egin diren asistentzia desberdinen kausak agertzen dira, beharantz ordenatu

dira. Informazioan eraginik ez izateko ez dira taulak komentatzen, aurretik ere egin baitira iruzkin egokiak.

5.2.1 GENERO INDARKERIA

	GUZTIRA
KOORDINAZIOA	1.560
INFORMAZIO OROKORRA	1.298
HARRERA KO ELKARRIZKETAK	418
JARRAIPEN KO ELKARRIZKETAK	392
ESKU-HARTZE PSIKOLOGIKOAK	339
DESBIDERATZEA	212
INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA JURIDIKO ESPEZIFIKOA	200
DIRU LAGUNTZEI BURUZKO AHOLKULARITZA	78
LAGUNTZA PSIKOSOZIALA EGINBIDE JUDIZIALETAN	62
LANKIDETZA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIN	27
DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOARI BURUZKO AHOLKULARITZA	23
KANPO-AHOLKULARITZA	12
GUZTIRA	4.621

21. taula: BLZren genero-indarkeriagatiko aholkularitza-motak 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

5.2.2 ASKATASUN SEXUALAREN AURKAKO DELITUAK

	GUZTIRA
KOORDINAZIOA	425
INFORMAZIO OROKORRA	315
ESKU-HARTZE PSOKOLOGIKOAK	234
JARRAIPENeko ELKARRIZKETAK	110
HARRERAKO ELKARRIZKETAK	102
INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA JURIDIKO ESPEZIFIKOA	51
DESBIDERATZEA	40
LAGUNTZA PSIKOSozIALA EGINBIDE JUDIZIALETAN	40
LANKIDETZA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIN	27
DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOARI BURUZKO AHOLKULARITZA	8
DIRU LAGUNTZEI BURUZKO AHOLKULARITZA	7
KANPO-AHOLKULARITZA	5
GUZTIRA	1.364

22. taula: BLZren sexu-askatasunaren aurkako delituengatiko aholkularitza-motak 2022an.
Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

5.2.3 FAMILIA BARRUKO INDARKERIA

	GUZTIRA
ESKU-HARTZE PSIKOLOGIKOAK	331
KOORDINAZIOA	317
INFORMAZIO OROKORRA	311
HARRERAKO ELKARRIZKETAK	68
JARRAIPENeko ELKARRIZKETAK	41
INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA JURIDIKO ESPEZIFIKOA	34
DESBIDERATZEA	15
LAGUNTZA PSIKOSOZIALA EGINBIDE JUDIZIALETAN	8
LANKIDETZA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIN	4
DIRU LAGUNTZEI BURUZKO AHOLKULARITZA	2
GUZTIRA	1.131

23. taula: BLZren familia barruko indarkeriagatiko aholkularitza motak 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

5.2.4 PERTSONEN AURKAKO DELITUAK

	GUZTIRA
INFORMAZIO OROKORRA	418
KOORDINAZIOA	234
ESKU-HARTZE PSIKOLOGIKOAK	137
INFORMAZIOERA AHOHKULARITZA JURIDIKO ESPEZIFIKOA	101
HARRERAKO ELKARRIZKETAK	85
JARRAIPENeko ELKARRIZKETAK	80
LAGUNTZA PSIKOSozIALA EGINBIDE JUDIZIALETAN	29
LANKIDETZA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIN	17
DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOARI BURUZKO AHOHKULARITZA	13
DESBIDERATZEA	8
GUZTIRA	1.122

24. taula: BLZko pertsonen aurkako delituengatik aholkularitza motak 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

5.2.5 ONDAREAEN AURKAKO DELITUAK

	GUZTIRA
INFORMAZIO OROKORRA	140
KOORDINAZIOA	105
JARRAIPENeko ELKARRIZKETAK	92
INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA JURIDIKO ESPEZIFIKOA	60
HARRERAKO ELKARRIZKETAK	18
LAGUNTZA PSIKOSozIALA EGINBIDE JUDIZIALETAN	8
DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOARI BURUZKO AHOLKULARITZA	6
LANKIUDEtZA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIN	6
ESKU-HARTZE PSIKOLOGIKOAK	4
DESBIDERATZEA	4
GUZTIRA	443

25. taula: BLZren ondarearen aurkako delituengatiko aholkularitza motak 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

5.2.6 TRAFIKO ISTRIPUAK

	GUZTIRA
INFORMAZIO OROKORRAK	6
JARRAIPENeko ELKARRIZKETAK	6
ESKU-HARTZE PSIKOLOGIKOAK	3
HARRERAKO ELKARRIZKETAK	2
INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA JURIDIKO ESPEZIFIKOA	1
KOORDINAZIOA	1
GUZTIRA	19

26. taula: BLZren zirkulazio-istripuengatiko aholkularitza-motak 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

5.2.7 BESTE DELITU BATZUK

	GUZTIRA
INFORMAZIO OROKORRAK	67
KOORDINAZIOA	44
ESKU-HARTZE PSIKOLOGIKOAK	22
JARRAIPENEN ELKARRIZKETAK	21
HARRERAKO ELKARRIZKETAK	15
INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA JURIDIKO ESPEZIFIKOA	15
DESBIDERATZEA	2
DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOARI BURUZKO AHOLKULARITZA	1
GUZTIRA	187

27. taula: BLZko beste delitu batzuentzako aholkularitza motak 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

6 PREBENTZIOZKO ESPETXE-JAKINARAZPENAK

Prebentziozko espetxeetako komunikazioak hiru motatakoak dira:

Espetxetik ateratzeagatik espetxe-komunikazioak, biktimari jakinarazten zaionean babes- edo urruntze-agindua duen biktimarioa espetxetik atera dela.

Sartze eta lekualdatzeengatik espetxe-komunikazioak, Ertzaintzari eta Gobernuaren Ordezkariordeztzari auzipetutako edo zigortutako pertsonen sartzeak eta espetxe-lekualdaketa jakinarazteko, baldin eta pertsona horien kausetan babes-agindua edo urruntze-neurria adostu bada.

Espetxe-erakundeek BLZri helarazten dizkioten kaleratze-jakinarazpenen edo sartze- edo lekualdatze-jakinarazpenen datuak biltzeko eta eguneratzeko egiten den datuen prebentziozko tratamendua, baldin eta horien kausetan ez bada babes-agindurik edo urruntze-neurririk adostu.

22an 2.497 jakinarazpen egin dira guztira; horietatik 1.330 (%53) espetxetik ateratzeagatik izan dira; beste 620 (%25) datuen prebentziozko tratamenduagatik izan dira; eta, azkenik, 547 (%22) sartze eta lekualdatzeengatik.

6.1 ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA

Guztira 632 pertsonari eman zaie arreta. Gehienak, 497, 2022a baino lehenagokoak dira (%79), eta 135 lehen aldiz laguntzen zaien pertsoneri dagozkie (gainerako %21).

	GUZTIRA
2022. URTEA	135 (%21)
2022.a BAINO LEHENAGOKOAK	497 (%79)
GUZTIRA	632

28. taula: BLZren prebentzio-komunikazioetan artatutako pertsonen kopurua 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

6.2 SEXUA

Horietatik gehienak emakumeak dira (% 85), hurrengo taulan ikus daitekeen bezala.

	GUZTIRA	
EMAKUMEAK	538	(%85)
GIZONAK	94	(%15)
GUZTIRA	632	

29. taula: BLZren prebentzio-komunikazioetan artatutako pertsonen sexua, 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

6.3 ADINA

Adinari dagokionez, 31 eta 50 urte artean dago gehienagoa (guztizkoaren %40). Muturrekoenak diren tarteeak (18tik beherakoak eta 71tik gorakoak) dituzte ehunekorik txikiak. Halaber, adina ezagutzen ez duten 76 pertsona daudela adierazi dugu (%13).

GUZTIRA		
<18	34	(%5)
18-30	147	(%23)
31-50	251	(%40)
51-70	103	(%16)
> 71	21	(%3)
ZEHAZTU GABE	76	(%13)
GUZTIRA	632	

30. taula: BLZren prebentzio-komunikazioetan artatutako pertsonen adina, 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

6.4 HERRITARTASUNA

Artatutako 632 pertsonetatik, gehienak (%79) Europar Batasuneko estatu kideetakoak dira (%76 EAEkoak edo beste autonomia-erkidego batzuetakoak).

EB-koa DEN ESTATU KIDETAKOAK	497	ESPANIAR ESTATUA	481	(%76)
		BESTE BAT	16	(%3)
EB-koa EZ DEN ESTATU KIDETAKOAK			135	(%21)
GUZTIRA			632	

31. taula: BLZren prebentzio-komunikazioetan artatutako pertsonen herritartasunak 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

6.5 BIZILEKUA

Horietako gehienek Bizkaian dute bizilekua (%44), gero Gipuzkoan (%24) eta, azkenik, Araban (%15). Azkenik, %17 EAetik kanpoko beste leku batzuetatik datoz.

BIZKAIA	280 (%44)
GIPUZKOA	151 (%24)
ARABA	95 (%15)
BESTE BAT	106 (%17)
GUZTIRA	632

32. taula: BLZren prebentzio-komunikazioetan artatutako pertsonen bizilekua 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

6.6 JAKINARAZPEN KOPURUA

Berriz ere, genero-indarkeria da prebentzio-komunikazioen xede den biktimizazio-kausa nagusia, guztizkoaren %60. Ehuneko horren oso azpitik daude sexu-askatasunaren aurkako delituak (%13), pertsonen aurkakoak (%12) eta familia barruko indarkeria (%10). Gainerako kausen ehunekoa oso txikia da. Kausak, guztira, 652 izan dira.

	GUZTIRA	
GENERO-INDARKERIA	390	(%60)
ASKATASUN SEXUALAREN AURKAKO DELITUAK	86	(%13)
PERTSONEN AURKAKO DELITUAK	77	(%12)
FAMILIA BARRUKO INDARKERIA	67	(%10)
ONDAREAREN AURKAKO DELITUAK	12	(%2)
DELITU OROKORRAK	20	(%3)
GUZTIRA	652	

33. taula: BLZren prebentzio-komunikazioetan artatutako pertsonen biktimizazio-kausak 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

6.7 DELITU KOPURUA

Aurreko taularekin lotuta, tratu txarren delituak dira gehienak (%69). Sexu-askatasunaren eta ukigabetasunaren kontrakoak %12 dira, eta giza hilketakoak %10. Gainerako delituen ehunekoa oso txikia da.

		GUZTIRA	
Tratu txarrak	Ohiko genero-indarkerian	323	458 (%69)
	Genero-indarkerian	69	
	Ohiko familia barruko indarkerian	38	
	Familia barruko indarkerian	28	
Sexu-askatasunaren eta ukigabetasunaren kontra	Sexu-erasoa	45	81 (%12)
	Sexu-gehiegikeria	34	
	Prostituzioari eta adingabeak galbidean jartzeari dagozkienak	2	
Gizahilketa	Gizahilketa	46	68 (%10)
	Gizahilketa saiakera	22	
Lesioak		27 (4%)	
Ondarearen aurka	Lapurreta	11	13 (%3)
	Ebasketa	1	
	Iruzurra	1	
Askatasunaren aurkako erasoak	Mehatxuak	8	11 (%2)
	Hertsapenak	2	
	Legez kontrako atxiloketa eta bahiketa	1	
Justizia Administrazioaren aurka (Kondena urratzea)		1 (%---	
Beste batzuk		2 (%---	
Guztira		661	

34. taula: BLZren prebentzio-komunikazioetan artatutako pertsonen biktimizazio-kausen delituak 2022an. Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua eta Justizia Zuzendaritza. Iturria: BLZ.

7. BILAKAERA

Jarraian, aurreko ataletan aipatutako aldagaietako batzuk aurkezten dira, 2021ean eta 2022an izandako bilakaera ikusteko.

ARTATUTAKO PERTSONAK	2021	2022
Gizonak	417 (%15)	453 (%17)
Emakumeak	2.412 (%85)	2.230 (%83)
GUZTIRA	2.829	2.683

35. taula: BLZn artatutako pertsonen guztizkoaren bilakaera (2021-2022). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

IZAPIDETUTAKO ESPEDIENTEAK	2021	2022
Genero-indarkeria	1.870 (%54)	1.439 (%53)
Familia barruko indarkeria	530 (%15)	386 (%14)
Pertsonen aurkako delituak	413 (%12)	384 (%14)
Sexu-askatasunaren aurkako delituak	366 (%10)	347 (%13)
Ondarearen aurkako delituak	93 (%3)	102 (%4)
Trafiko-istripuak	7 (%0)	5 (%0)
Delitu orokorrak	208 (%6)	71 (%3)
GUZTIRA	3.487	2.734

36. taula: BLZn izapidetutako espedienteen bilakaera (2021-2022). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

EGINDAKO ARRETAK	2021	2022
Koordinazioa	3.131 (%31)	2.686 (%30)
Orokorreko informazioa	3.085 (%31)	2.555 (%29)
Esku-hartze psikologikoakj	1.104 (%11)	1.070 (%12)
Jarraipen-elkarrizketak	961 (%10)	742 (%8)
Harrera elkarrizketak	770 (%8)	708 (%8)
Informazio eta aholkularitza juridiko espezifikoa	557 (%6)	462 (%5)
Desbideratzea	162 (%2)	281 (%3)
Laguntza psikosoziala eginbide judizialtan	120 (%1)	161 (%2)
Diru-laguntzei buruzko aholkularitza	60 (%1)	87 (%1)
Lankidetza justizia administrazioarekin	47 (%0)	67 (%1)
Doako laguntza juridikoari buruzko aholkularitza	69 (%1)	51 (%1)
Kanpo-aholkularitza	34 (%0)	17 (%0)
GUZTIRA	10.100	8.887

37. taula: BLZn egindako arreten bilakaera (2021-2022). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

PREBENTZIOZKO ESPETXE-JAKINARAZPENAK	2021	2022
Espetxetik ateratzeagatiko espetxe-jakinazpenak	726 (%47)	1.330 (%53)
Espetxeratze edo lekualdatzeagatiko espetxe-jakinazpenak	488 (%31)	620 (%25)
Datuen prebentziozko tratamendua	345 (%22)	547 (%22)
GUZTIRA	1.559	2.497

38. taula: Espetxe-komunikazio prebentiboen bilakaera BLZn (2021-2022). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).

ARTATUTAKO PERTSONAK	2021	2022
Gizonak	86 (%13)	94 (%15)
Emakumeak	552 (%87)	538 (%85)
GUZTIRA	638	632

35. taula: BLZn Prebentziozko Espetxeetako Komunikazioen arabera artatutako pertsonen guztizkoaren bilakaera (2021-2022). Egilea: Kriminologiaren Euskal Institutua (UPV/EHU) eta Justizia Zuzendaritzako Helduen Justizia Zerbitzua. Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (EJ).